



« PKUTXETAN IBILKI »

IPUIN EPIKOAK

OBJEKTU ANTZERKIAN KONTATUAK
DENENTZAT, URTE BAT, HIRU URTE EDO 6 URTETARIK GOITI
(HIRU BERTSIO: TXIKI-TXIKIAK, AMA ESKOLAKOAK EDO LEHEN MAILA)



TXOSTEN PEDAGOGIKOA



... KUTXEN BARNEAN IBILKI...

Kutxa bakoitzaren barnean ipuin bat bada.

Emanaldi bakoitz, kontalariak bi edo hiru kutxa zabaltzen dituzte. Ipuinen artean zubiak badira...

Bainan ez dira beti ber zubiak...

...Adinen arabera...

Urte 1etik goiti bertsio bat

3urtetarik goiti bertsio bat

6 urtetarik goiti bertsio bat

Eta hau aberasten doa
urtez urte kutxa berriak zabaltzen dira!



...IKUSKIZUNA...

Kutxa bat zabaltzen da.

Objektu antzerkia hasten da..

Ez-ohiko objektu andana bat laguntzat harturik (zapata xahar bat, identifikatu gabeko botoinak, hitz abenturazalez beteriko ontzi bat...), bi jokalariek gure irudimenaren oihanean zehar ibilaldi baten egitera gonbidatzen gaituzte.

Zentzu eta sentipenez beteriko haurrentzako liburu batzuek librokiko inspiraturik, ikuskizun honek beldurraren paretak killikatzen ditu, bai bestearekiko bai naturarekiko dugun harremana galdezkatuz.

Hurbiletik partekatzeke, edozoin adinetan.





...FUNTSEAN...

Harremanaren eta gure arteko loturaren inguruko hausnarketa poetiko bat.
Bestearekiko lotura. Naturarekiko lotura.
Haurrentzako liburuetan bermaturik,
Gaur egungo ipuin hauek, objektu berezien sinbolikak aberasturik, norbera-
ren izaera berezia begiratzeko oztopo eta mugen kentzera ekartzen gaituzte.

.....

...MEDIAZIOA...

Sorkuntza honek haurrentzako liburu batzu objektu antzerkiaren bidez ze-
harkatzen ditu. Gai nagusiak jendeen arteko harremana eta ingurumena dira.
Egitasmoak hiru puntu hauek berrasmatzera ekartzen gaitu :

- Objektu antzerkiarekiko harremana
- Haurrentzako literaturarekiko harremana
- Ingurumen eta sozial gaiekiko harremana, hauen aipatzeko beste manera bat proposatuz

Bestearekiko harremanaz, ezberdintasunaz, ezezagunaz eta beldurraz haus-
narketa bat bermatzen du, literaturan geldialdiak eginez.





cie.nanoua@gmail.com
www.cie-nanoua.com

IKUSGARRIA IKUSI ONDOTIK TIRA DAITEZKEEN HARIAK, JARRAI DAITEZKEEN HAUSNARKETAK...

- Hitzak airean biltzen dituen mutiltxoak irudikatu eta marraztu
- Mutiltxo horren inguruko sinbolikak landu (elbarritasuna, ezberdintasuna, hizkuntza ezberdinen eta hitz egitearen inguruko problematikak, ikasteko bakoitzak behar duen denbora...)
- Leonie-ri agertzen zaizkion gauza ezberdinak irudikatu. Haurrek nola ikusi dituzte oihana, zuhaitz motak etb... ?
- Ingurumena eta naturarekiko harremana galdezkatu : hauek gabe gure mundua nolakoa litzateke ? Ura, mendia etb...
- Elementu hauek eraldatu : karamel oihan bat, pentze arros bat etb...
- Leonie-ren etxeko paretak zer dira ? Buruan ditugun paretak ? Zoin muga kendu behar dugu besteari zabaltzeko, munduari zabaltzeko ?
- 3 edo 4. kutzan konta daitekeen ipuina asmatu
- Zergatik ezagutzen ez dugunak beldurtzen gaitu ? Gauza edo jende ezezagunekin bizi ditugun esperientziak trukatu. Hastapen batean ezezagun eta arrotz zaigunetik hurbiltzeak nola beldurra kentzen ahal duen, edo alderantziz, handiarazten. (6 urtetatik goitikoentzako bertsioari loturik)

...GAI HAUEK HUNKITZEN DITUZTEN LIBURU BATZU...

- Le petit voleur de mots, Nathalie Minne-en eskutik
- La maison de leonie, de Klaas Verplanck-en eskutik
- Tout allait bien, Franck Prevost-en eskutik
- Frisson l'écureuil, Melanie Watts-en eskutik
- La petite casserole d'Anatole, Isabelle Carrier-en eskutik

Telefono zenbaki pedagogikoa : 06 83 15 29 44

.....

Arduradun artistiko eta pedagogikoa
Fanny Bérard

Ekoizpena eta administrazioa
Caroline Galin

Hedapena
Agnès Seguigne

.....